

**2003KO OTSAILAREN 20AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIKO AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeia.

HILABETEA: Otsaila.

URTEA: Bi mila eta hirua

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Patxi Plazaola Muguruza
Ana Isabel Asla Egialde
Jose Antonio Guirado Tristan
Pello Garaialde Goikoetxea
Josi Insausti Mujika
Jon Berbel Aiestaran
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Leire Lopez Zurutuza
Aimar Larrea Garin
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna Jorge
Jorge Juan Outeiral Fernandez

ETORRI GABEA: Arantza Aseginolaza Azkargorta

IDAZKARIA: itziar Arostegi Apaolaza

Gertaera: Beasaingo Abertzale Sozialistak taldeko ordezkariak, adierazpen-askatasunari buruzko pankarta batekin sartu dira Udaletxeko Batzar Aretora eta Alkateak eta Patxi Plazaola zinegotziak kendu egin dute.

1.- AKTA

2002ko abenduaren 19ko aktaren berri emanik, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ARAU SUBSIDIARIOAK, 4. HA:

- a) Aurkeztutako alegazioaren ebazpena eta 4. HAko ordenamendu berriaren behin-behineko onespena.

Alkateak, Patxi Plazaola, hirigintza-batzordeburuari hitza eman dio eta Patxik proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Arau Subsidiarioen aldaketa: 4. HA

I.- Udalbatza Osoak 2002ko abenduaren 19an, hasierako onespena eman zion 4. Hirigintza Areako ordenazio berriari eta espedientea jendaurrean jarri zen hilabeteko epean, 2002ko abenduaren 21eko Euskaldunon Egunkarian, 2002ko abenduaren 24ko Diario Vascon eta 2002ko abenduaren 31ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratuz, interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izateko.

II.- Alegazioak aurkezteko epean, Pedro Risueñok, Promotora del Goyerri, S.A. enpresaren ordezkari, sinatutakoa aurkeztu da. Alegazioaren edukia 4. HA-ko fitxan ezarritako eraikin-profilei buruzkoa da. Horiei buruz ondorengoa eskatzen du:

- J. M. Iturriotz kalearen parean kokatutako blokeetako fatxaden gehienezko (derrigorrezkoa) lerrokadaren erreferentzia alde batera uztea, lerrokada horretatik abiatuta hegala baimentzeko.
- F-F ebakiduran definitutako eraikinean, garaje-erabilera eta merkataritza-erabilera baimentzea.

III.- 2003ko otsailaren 10eko datarekin arkitektoak, alegazioari buruzko txostena egin du, ondorengoa adieraziz:

“Aurkeztutako alegazioak ikusita eta aipatutako irizpideak arrazoizkoak direla kontuan hartuz (geologi arazoak eta eraikina hor sartzeko dauden zailtasunak, atzealdean dagoen maldagatik, h=13 m. gutxi gorabehera),

pentsatzen dugu alegazioa onar daitekeela, "gehieneko lerrokada, hegala barne" baldintza kenduz. Horren ondorioz, eraikina posizio horretan lerroka daiteke (lerrokadak eta arrasak) eta aurrealdeko fatxada nagusian, luzera osoan zehar metro beteko hegala izan, atzealdean gauza bera baina luzeraren % 50ean dela.

Halaber onartzen da, F-F ebakiduran definitutako eraikinak, merkataritza-erabilera eta garaje-erabilera (erabilera mistoa) izatea.

Esandakoaren arabera, alegazioa, aurkeztu den moduan onartzea proposatzen dugu".

OINARRI JURIDIK OAK

Legeria aplikagarria xedapen hauetan azaltzen da:

- Planeamendu Araudiaren, 130. artikuluan eta ondorengoetan.
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duen apirilaren 21eko 11/1999 legearen 47.3 artikuluan.

Beraz, Udaltzari ondorengo akordio-proposamena egiten zaio:

Lehenik. Aurkeztutako alegazioa, aipatutako txosten teknikoaren arabera onartzea.

Bigarren. 4. HA-rako Beasaingo Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak puntualki aldatzeari behi-behineko onespena ematea.

Hirugarren. Espedientea Foru Aldundiari bidaltzea, hala badagokio behin betiko onespena eman diezaion ."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez eta gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

- b) Olaran-eneko hitzarmena. 2002ko uztailaren 24ko hitzarmena bertan behera uztea eta 2002ko abenduaren 20ko aurre-hitzarmena berrestea.

Alkateak, Patxi Plazaola, hirigintza-batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Manufacturas Olaranekin hitzarmena.

2002ko apirilaren 18ko datarekin Udalbatzak 4. Hirigintza Area urbanistikoki garatzeko Manufacturas Olaranekin sinatu beharreko hitzarmenaren edukia onartu zuen, izan ere, data horrekin onartu baitzen area horretarako eta 8. Sektorerako Arau Subsidiarioen aldaketa.

Ondoren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Ondare Zuzendaritzak, aholkatzen du, Manufacturas Olaran enpresaren eraikin industrialia partzialki sendotzea eta 2002ko abenduaren 20ko datarekin, Udalbatza Osoak, bertan behera uzten ditu 4. HA-rekiko Arau Subsidiarioen aldaketa onartzeko erabakiak eta hasierako onespena ematen dio 4. HA-rekiko aurreikusitako ordenamendu berriari.

Hirigintza-fitxen xehetasun berriak kontuan izanik, Alkate jaunak data berean, aurre-hitzarmena sinatu zuen, Manufacturas Olaran, Promotora del Goyerri, S.A. eta Maria Victoria, Maria Isabel, Maria Josefina eta Maria Luz Olaran Irizar andreekin (Olaran aizpak ondasun erkidegoa).

Horren ondorioz, hirigintza-batzordeak ondorengo akordio proposamena egiten dio Udalbatzari:

Lehenik. 2002ko uztailaren 24an, Manufacturas Olaran S. A.ren eta Udalaren artean sinatutako hitzarmena bertan behera uztea.

Bigarren. 4. Hirigintza Area urbanistikoki garatzeko Alkateak, Manufacturas Olaran, Promotora del Goyerri S.A. eta Maria Victoria, Maria Isabel, Maria Josefina eta Maria Luz Olaran Irizar andreek (Olaran aizpak ondasun erkidegoa) 2002ko abenduaren 20an sinatutako aurre-hitzarmena berrestea, 8. puntua bakarrik aldatuta, hau da, “Promotora del Goyerri S.A.-k 20-21 babes ofizialeko etxebizitzak eraikitze orubearen jabetza Beasaingo Udalari eskualdatuko dio”, esaten duen tokian ondorengo esan behar du: “Promotora del Goyerri S.A.k 20-21 babes ofizialeko etxebizitza eraikitze orubearen jabetza Beasain Lantzen S.A.-ri eskualdatuko dio.”

Hirugarren. Erabaki honen berri aurre-hitzarmenean parte hartu dutenei ematea, hamabost eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkez ditzaten. Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betiko bihurtuko da eta horren ondorioz, 2002ko abenduaren 20an sinatutako aurre-hitzarmena, hitzarmen bihurtuko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez eta gehiengo absolutuarekin onartu da hitzarmenaren edukia:

“Beasainen, 2002ko abenduaren 20an

BILDURIK:

Alde batetik, Jon Jauregi Bereziartua, Beasaingo Udaleko Alkate-Lehendakaria, 15.976.263-A NA duena, Beasaingo Udalaren ordeztu eta bere izenean. Udalbatza Osoak ... bileran hartutako erabakiaren arabera, ahalmena eman dio ekintza honetarako.

Beste alde batetik, Francisco Jimenez Perez Muelas, Manufacturas Olaran S. A.ren Zuzendaria, 23.196.754 NA duena Manufacturas Olaran S. A.ren ordeztu.

Eta Pedro Risueño Moreno, 22.415.575 NA duena, Promotora del Goyerri S.A.ren ordeztu.

AITORTZEN DUTE:

1. 2002ko uztailaren 24ko datarekin, Beasaingo Udalak, Alkateak ordezkaturatu eta Manufacturas Olaran S. A.-k, Francisco Jimenez ordezkaturatu, hirigintza-hitzarmena sinatu zuten, Arau Subsidiarioetako 4. HA-ko 4.1. orubearen hirigintza-garapenez eta Manufacturas Olaran enpresa, Beasaingo 8. Sektorera lekualdatzeaz.

2. Helburu horiek lortzeko Beasaingo Udalak 4. HA eta 8. Sektoroko Arau Subsidiarioen aldaketaren idazlana enkargatu zituen eta izapidetzeari ekiteaz gain, 2002ko ekainaren 27ko Udalbatzarrean behin-behineko onespena eman zion eta 2002ko uztailaren 22an Foru Aldundira bidali zen behin betiko onespena emateko.

3. Eusko Jaurlaritzako Ondare Sailaren eta Foru Aldundiko Kultura Sailaren iradokizunak eta Arau Subsidiarioetako 4. HA-ko 4.1. EU-ko eta aipaturatutako Hirigintza-hitzarmenean aurreikusitako hirigintza-garapenerako zailtasunak kontuan izanik, Udalbatza Osoak 2002ko abenduaren 19an, 4. HA-ko ordenamendu berriari hasierako onespena ematea erabaki zuen, Manufacturas Olaran, S.A.-ren egungo pabilioiaren eraikin nagusia eta dorrea sendotuz.

4. Hori dela eta, beharrezkoa da lehen aipaturatutako hitzarmenaren bidez lortutako akordio batzuk aldatzea. Beraz aldeek, ondorengo

AITORTZEN DUTE:

Manufacturas Olanan enpresa kokatzen den finkaren jabeak, baldintza baldintzagilearekin, Promotora del Goyerri-ri, Beasaingo Arau Subsidiarioen 4. HA-ko, 4.1. EU-ko lursailak saldu dizkio. Halaber, Manufacturas Olanan-ek bere enpresa-jarduera kokatzeko Beasaingo 8. Sektorean, 2.970 m²-ko azalera duen lursail bat gehi 925 m²-ko erreserbako industri lurzoru eraikigarria erosi ditu.

Horretarako Beasaingo Udalak, abian jarri du, 4. HA-rekiko Arau Subsidiarioen aldaketa, bertan 82 etxebizitza libre eta 20-21 babes ofizialeko etxebizitza, aretoak eta garajeak egiteko eta aldi beran, Manufacturas Olanan pabilioiaren eraikin nagusia eta dorrea kontserbatzeko.

Hau guztia gauzatzeko, aldeek izandako negoziazioen arabera, HIRIGINTZA-HITZARMENA sinatu behar dute, puntu hauek jasoz:

- 1) Beasaingo Udalak aipatutako aldaketak izapidetuko ditu eta behin betiko onespina emango die behar diren agiriei (Konpentsazio Proiektua, Hirigintza Proiektua, Xehetasunezko Azterlana....)*
- 2) Beasaingo Udalak, Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala behin betiko onartzen denean, 4. HA-ko 4.1. EU-n 1 eta 2 atariak eraikitze baimena emango du nahiz eta Manufacturas Olanan S. A.-ren erauzketa egin gabe egon, izan ere, horiek eraikitze aurreikusita dagoen tokia ez dute oztopatzen egungo Manufacturas Olanan S. A.-ren eraikinak eta instalazioek.*
- 3) 4.1. EU-n, 82 etxebizitza libre, garajeak eta merkataritza-aretoak eraikitze ekitaldien garapena ondorengoa izango da:*

1. ekitaldia

1. ataria eraikitzea eta hirigintza osagarria egitea.

Lizentzia eskatzeko data: Arau Subsidiarioen aldaketaren eta ordenamendurako eta kudeaketarako behar diren beste dokumentuak behin betiko onartzen direnetik zenbatuta, sei hilabete baino lehenago.

2. ekitaldia

2. ataria eta hirigintza osagarria egitea. Hirigintza honen barne. Lizentzia eskatzeko data: lehenengo ekitaldirako lizentzia ematen denetik zenbatuta, hamabi hilabete baino lehenago.

3. ekitaldia

3. ataria eta hirigintza osagarria egitea.

Lizentzia eskatzeko data: bigarren ekitaldirako lizentzia ematen denetik zenbatuta, hamabi hilabete baino lehenago.

4. ekitaldia

4. eta 5. atariak eta hirigintza osagarria egitea. Lizentzia eskatzeko data: hirugarren ekitaldirako lizentzia ematen denetik zenbatuta, hamabi hilabete baino lehenago.

4) Beasaingo Arau Subsidiarioetako 4.1 EU-ko behin betiko aprobetxamenduen datuak, gutxienez ere hauek izango dira:

- Arearen gutxi gorabeherako azalera: 5.982 m²
- Etxebizitzen gehieneko azalera (oineko okupazioa): 2.100 m²
- Gehienezko etxebizitza libreen kopurua: 82
- Gehienezko babes ofizialeko etxebizitzen kopurua: 20-21
- Etxebizitza libreetan eraikitako azalera: 8.000 m²
- Babes ofizialeko etxebizitzetan eraikitako azalera: 1.900 m²
- Profil eraikigarria: SO + BO + 30tik 70ra (1) + TPO

(1) 1. eta 2. atariak.....70
3. ataria.....60
4. eta 5. atariak.....50
6. eta 7. atariak.....30 (BOE)

- Teilatu-hegala: 1,2 metro
- Teilatuaren malda handiena: 30 gradu
- Hegalkin ireki handiena: metro bat
- Hegalkin itxi handiena: metro bat

5) 4.1. EU-n garatu beharreko hirigintza-izapidea ondorengoa izango da:

- 4. HA-ko Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala.
- Konpentsazio Proiektua jabe bakarrekoa.
- 4.1. EU-ko Xehetasunezko Azterlana.
- Ekitaldi bakoitzerako eraikitze-proiektua, dagokion hirigintza osagarriarekin.

6) Manufacturas Olan S. A.-k, gune libreko sistema orokorrerako behar diren lursailak eskuratzeari dagokion prezio zuzena (gehienera ere 24.040,48 €), ordainduko dio Beasaingo Udalari. Gune libre

horiek 4. HA-ko Arau Subsidiarioetan aurreikusi dira, legeak, etxebizitzaren kopurua handitzeagatik horrela eskatzen duelako.

- 7) *Manufacturas Olan S.A.-k Beasaingo Udalarari 120.000€ -ko diru-kopurua ordainduko dio, enpresa toki hori utzarazten hasten denetik zenbatutako 30 eguneko epean. Diru-kopuru hori, J. M. Iturriotz kalearen (bidearen eta ibaiaren ondoko espaloia), trazatua aldatzeak jotzen duenagatik ordainduko du. Horrela, 1994ko urtarrilaren 18ko datarekin bien artean sinatutako hitzarmenean aurreikusitako konpromisoak beteta gelditzen dira.*
- 8) *Promotora del Goyerri S. A.-k 20-21 babes ofizialeko etxebizitza eraikitze orubearen jabetza Beasaingo Udalarari eskualdatuko dio.*

Salerosketaren prezioa, 120.202 € -tan finkatzen da eta salerosketa-prezioa, eskritura publikoa formaltzen denean Beasaingo Udalak Promotora del Goyerri S.A.-ri, ordainduko dio. Salerosketa formaltzeko epea, sei hilabetekoa da, jabetza bakarreko Konpentsazio Proiektua onartzen denetik zenbatzen hasita. Hirigintza-hitzarmen honen 5. puntuaren arabera, Konpentsazio Proiektua, Promotora del Goyerri S.A.-k idatzi beharko du.

Udalak, orube horren ataurerako hirigintza (1,5 metroko zabalera duen perimetro-zatia), Joan XXIII. kalera doan espaloia egokitzea eta hornidura-zerbitzuen sarea jartzea (ura, argia, estolderia, telefonia, gasa, argiteria publikoa) ordainduko du.

Promotora del Goyerri S.A.-k orubea inolako kargarik gabe entregatuko du, areako hirigintza-gastuei dagokien kuota barne delarik. Orubearen salerosketa-eskriuratik ondorioztatutako gastuak eta zergak Beasaingo Udalaren kontura izango dira.

- 9) *Manufacturas Olan S. A.-k bere enpresa-jarduera 8. Sektore berrira lekualdatzeko konpromisoa hartu du eta aldaketa hori 2004ko irailaren 30az aurretik hasi eta 2005eko irailaren 15eraino luza daiteke, kontratista-sustatzaileak aipatutako pabilioiaren giltzak entregatzen dituen data errealean arabera.*
- 10) *Manufacturas Olan S. A.-k 8. Sektorean garatu behar duen jarduera, gaur egun garatzen duenaren berdina izango da. Lekualdaketa egiten denetik gutxienez ere bost urteko epean, jarduera hori ezin izango du garatu Manufacturas Olan S. A. ez den beste enpresa batek. Jarduera-baimena eskatzeko garaian, Manufacturas Olan S. A.-k, Jabetza Erregistroan bere izenean*

inskribatutako lursail-jabetzaren titulu-inskripzioa aurkeztuko du eta horrekin batera, aipatutako baldintza jasoko da. Aldi berean, gutxienez ere esandako epean, enpresak egungo plantila mantentzeko konpromisoa hartuko du.

Klausula hau ez betetzeak ez du eraginik izango 4. HA-ko 1. EU-ko hirigintza-garapenean.

11) Promotora del Goyerri, S.A.-k, Manufacturas Olan-ek 6 hilabeteko epean pabilioia utzarazi eta haren esku uzten duenetik zenbatzen hasita, Promotora del Goyerri S.A.-k pabilioi horren jabetza Beasaingo Udalari lagako dio, 4.1. EU-k Udalari ordaindu beharreko %10aren aprobetxamenduaren truke.

Eta guztiaren adostasun frogatzat bildutakoek dokumentu hau hirukoizturik sinatu dute, goian aipatutako datan eta lekuan.

*Beasaingo Udalaren aldetik
Sinatua: Jon Jauregi Bereziartua*

*Manufacturas Olan S. A.-ren aldetik
Sinatua: Fco Jimenez Muelas*

*Promotora del Goyerri S.A.-ren aldetik
Sinatua: Pedro Risueño Moreno*

ZUZENKETA: Dokumentu honetako salmenta nahiz erosketa, MANUFACTURAS OLARAN S.A.-ren aldetik, María Josefina Olan Irizar, Maria Victoria Olan Irizar, Maria Luz Olan Irizar eta Maria Isabel Olan Irizar-ek egingo dute. Horiek, saldu behar diren ondasun higiezin jabetza dute, ondasun-erkidegoan eta MANUFACTURAS OLARAN S.A.-ren jarduera kokatu behar den ondasun higiezin erosleak izango dira. Beraz, horregatik argibide hau ematen dute eta HIRIGINTZA-HITZARMEN hau oso-osorik berretsi eta sinatzen dute.”

3.- ARAU SUBSIDIARIOAK, 18. HA. 18. HA-rekiko Arau Subsidiarioen lehenengo aldaketari hasierako onespina ematea.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola hirigintza-batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du.

“AURREKARIAK

2000ko maiatzaren 2ko datarekin, Diputatu Kontseiluak behin betiko onespena eman zion, 18 HA-rekiko eta 7. S-rekiko Arau Subsidiarioen aldaketari.

Ondoren, garapen eta kudeaketako planeamendu-dokumentuak idatzi eta onartu ziren, hala nola, Barne Berrikuntzako Egitasmo Berezia, Hirigintza Proiektua, eta Konpentsazio Proiektua.

Gaur egun eremu horren hirigintza eta eraikuntza oso aurreratuta daude.

Orain, Arau Subsidiarioetan garapenerako ezarritako baldintza batzuk aldatzea proposatzen da. Beraz, irizpide eta helburu orokorren baitan dauden, egitasmo eta proiektuak xehetasun berri hauekiko doitu beharko dira.

Egin nahi dena da, Arau Subsidiarioen eduki batzuk aldatu, eremu horretako xehetasunek eskatzen duten ordenamendu eta eraikin-baldintza berriak era egokian ebazteko.

Xehetasun horiek honetan dautza: lehen (Arau Subsidiarioen lehen aldaketa) eraikitzeke (18 HA-k Barne Berrikuntzako Egitasmo Berezia eta Xehetasunezko Azterlana) zegoen lurzoruaren zati bat ezabatzea, Igartzako monumentu-multzoarentzako (Jauregia, Errota, Burdinola) gunea librea gordetzeko.

Eraikigarritasun-galera hori, ekonomikoki konpentsatu ezin denez, eraikitzeke eskubideak gai den eremura lekualdatzera behartzen gaitu, hirigintza-galera handirik izan gabe.

Lekualdatze horrek zera eskatzen du, Oria ibaiaren eskuinaldeko ertzean kokatutako etxadiaren profila handitzea, lehen aurreikusitakoarekiko oin bat gehiago eraikitzea baimenduz.

Horretarako, lehen onartutako gehienezko profilak aldatu egin behar dira eta kopuruak doitzeko, etxe eraikigarriaren sabaia 200 m²-tan handitzea dakar (honek ez du eraikigarritasun handiagorik suposatzen, baina erregistroan inskribatutako eta egikaritutako beste lursail batzuei emandako eskubide teorikoak mantentzen dira).

Aldaketak halaber aurreikusten du, bloke berean bigarren garaje-sotoa egitea, eraikinak dituen etxebizitzaren garaje-eskaera betetzeko.

Horren ondorioz eta Planeamendu Erregelamenduaren 125. eta ondorengo artikuluek diotenaren arabera, Udalbatzari ondorengo akordio-proposamena egiten zaio:

Lehenik. 18. HA-rekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen lehenengo aldaketaren aldaketari hasierako onespena ematea.

Bigarren. Espedientea hilabeteko epean jendaurrean jartzea, iragarkia GAOn eta Diario Vascon eta Eguneron argitaratuz, interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta aldi berean gehiengo absolutuarekin proposamena onartu egin da.

4.- BEASAINGO HERRI-BIDEAK. Beasaingo herri-bideei buruzko azterlanari hasierako onespena ematea.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola, ingurugiro-batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Beasaingo landa-guneko bideen azterlana.

Aurrekariak

Landa-guneko bide-sareek azken urteetan egungo beharrei aurre egiteko asmoz jasan dituzten aldaketak handiak izan dira. Bide berriak ireki dira, zaharrak zabaldu eta zoruaren egokitze-lanak aurrera eraman dira.

Egokitze-lan horiek direla bide, sare zaharreko bideak erabiltzeari utzi egin zaio, asko itxirik daude eta arazo desberdinak sortzen ari dira bere inguruan.

Honela, udalaren menpe dauden bide-zerrenda baten falta dela eta, beren erabilpen eta gozamenaren inguruan sortutako arazoak kontuan izanik, 2001eko ekainaren 20an, ingurugiro batzordeak, Kontxi Uriarte Seminario andreak eta Antton Olaizola Iparragirre jaunak eratutako taldeari Beasaingo landa-gunean dauden bideen azterlana egiteko erabakia hartu zuen.

Azterlan horren helburua, Beasain udalbarrutiko landa-gunean udalaren menpeko bide guztien azterketa eta inbentarioa egitea da, bide bakoitzaren fitxa betez eta bere ezaugarriak, egoera eta erabilerak bertan azalduz.

Batzordearen proposamena:

Aurrekarietan azaldutako lana amaitua izan ondoren, lana batzordean aztertu da eta ondorioz ondorengo proposamena luzatzen zaio Udalbatza Osoari:

- Aurkeztutako dokumentazioari hasierako onespina ematea.
- Jende aurrean 90 eguneko epean espedientea jartzea, alegazioak aurkeztu ahal izateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

5.- JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA:

- a- Errail antzerki taldeari jarduera ekonomikoen gaineko zergarekiko salbuespena ematea.
- b- Arangoiti fundazioari jarduera ekonomikoen gaineko zergarekiko salbuespena ematea.

Alkate jaunak, Jose Antonio Guirado Hazienda-batzordeburuari hitza eman dio eta honek proposamenaren berri eman du:

“GAIA: ERRAIL ANTZERKI (IFZ: G20637435) taldeak eta ARANGOITI FUNDAZIOAK (I.F.K.: G20779286) aurkeztutako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren salbuespen eskaria.

ERRAIL ANTZERKI taldeak eta ARANGOITI FUNDAZIOAK aurkeztutako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren salbuespen eskaria ikusirik, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratuaren 5.1 g) artikuluan xedatutakoaren arabera, hau da: “Elkarteen Erregistroan inskribatutako irabazi asmorik gabeko elkarteak salbuetsita gelditzen dira, baldin eta udalarekin batera lankidetzeta-jarduerak burutzeagatik, bertako organo eskudunak herri-onurako izendatzen baditu.”

Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengo PROPOSAMENA egiten dio:

1.- 2.003. urtetik aurrerako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren salbuespena eta kontzeptu horregatik aurreko urteetan sortutako zergen

deuseztapena onartzea ERRAIL ANTZERKI taldearen eta ARANGOITI FUNDAZIOAREN alde.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Sailari hartutako erabakiaren berri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

6.- MOZIOAK

- PPk Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Foru Arauaz aurkeztutako mozioa.

Alkate jaunak, Julio Herreros PPko ordezkariari hitza eman dio eta honek mozioa irakurri du:

“PROPUESTA DE ACUERDO

El Ayuntamiento insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que modifique la Norma Foral del Impuesto de Actividades Económicas.

JUSTIFICACION

Partiendo del principio de que los Ayuntamientos tienen que gestionar los servicios municipales y todas sus competencias de la forma más eficiente y eficaz, lo que implica necesariamente exigir a los ciudadanos la contribución menor .posible, consideramos necesaria y oportuna la reforma del IAE.

El IAE es un impuesto cuyo hecho imponible está constituido por el mero ejercicio de una actividad empresarial. profesional o artística en un termino municipal, es decir. es un tributo que grava una actividad independientemente de que exista beneficio o no o de que genere empleo. .

Este impuesto a partir del 1 de enero se modificará sustancialmente en el resto de España. Más de 2.100.000 de pequeñas empresas y autónomos no tendrán que abonar este impuesto, por lo que proponemos que los emprendedores que ejercen su actividad en nuestro municipio tampoco tengan que hacerlo.

Por tanto creemos oportuno que nuestro Ayuntamiento inste a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que ACUERDE:

1. La supresión para todos los contribuyentes del IAE que sean personas físicas.
2. La supresión del IAE para todos los contribuyentes que sean personas jurídicas y tengan una cifra de negocio inferior a 1.000.000 de euros anuales.
3. Otorgar a los Ayuntamientos la facultad de establecer diferentes tipos de bonificaciones en este tributo..
4. Negociar con el Gobierno Vasco en el seno del Consejo Vasco de Finanzas las compensaciones necesarias para los Ayuntamientos asumiendo el coste de la reforma.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Jose Luis Elorza jaunak (PSOE-PSE-EE): “Con la idea básica de la moción estaríamos de acuerdo, pero en estos momentos nosotros nos remitimos a que haya un acuerdo político con respecto a este tema. El único modo para que a través de los fondos públicos se haga una sociedad más justa, es precisamente recaudando impuestos. La eliminación de determinados impuestos como es el del IAE, para determinados colectivos como pueden ser los autónomos nos parece muy bien, pero no tanto que eso se plantee sin más, sin saber de donde se va a compensar lo que no se recauda por esa vía. Nosotros nos vamos a abstener apelando a un acuerdo político.”

Andoni Antxia jaunak (Beasaingo Abertzale Sozialistak): “PSOE-PSE-EE-rekin nahiko ados gaude, hau da, demagogia egitea besterik dela udaleko diru-sarrera bat kendu egin behar dela esan eta hutsune hori nola bete behar den ez esatea. Kontuan izan behar da zerga hori eta Beasaingo kasuan horrela da, diru-iturri garrantzitsua da.

Beste alde batetik esan beharra dago, nahiz eta zergak denok ordaindu beharra izan, progresiboak direla eta herrian onura bat ateratzen duenak, nahiko bidezkoa du onura horren truke zerga bat ordaindu beharra izatea. Gaur egun funtzio hori Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergak betetzen du. Gure jarrera aurkakoa izango da.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Esta es una iniciativa con un interés claramente electoral, que suena bien, que responde a una iniciativa del partido popular a nivel de Madrid, que la política de facilitar y de mejorar las condiciones de trabajo y de éxito económico de los autónomos trasciende

mucho a lo que es la política o la discusión de si se suprime o no el impuesto de actividades económicas ya que dentro del balance anual de una empresa pequeña es como vulgarmente se dice la “sal de la ensalada”. La política tributaria debe ser dinámica y en cada momento debe de aportar las mejores soluciones para incentivar la generación de riqueza que a su vez genere la recaudación de mayores impuestos para una mejor redistribución de los bienes. En ese sentido entendemos que es fundamental que dentro de Euskal Herria y de la Comunidad Autónoma Vasca, mantengamos todos los Ayuntamientos y las Instituciones Forales unos criterios comunes. Parece que se está gestando un acuerdo político a este respecto y por ello sería bueno esperar en que concluye ese proceso de negociación y ver cómo se resuelven los cuarenta o cincuenta millones que puede perder Beasain por la eliminación de circunstancias económicas. Por todo ello, vamos a votar en contra de la moción.”

Julio Herreros jaunak (PP): “Estamos satisfechos al conocer el anuncio de la modificación del IAE, para este territorio. Celebramos que aunque tarde, se apueste también en Gipuzkoa por las políticas de reducción de impuestos que viene propugnando el Partido Popular. Esta modificación va a conseguir que en nuestro territorio más de 65.000 guipuzcoanos dejen de pagar el IAE, además de que los Ayuntamientos van a ver incrementada la autonomía financiera y fiscal.

Sin embargo, y además del retraso con que nos llega a los guipuzcoanos la reforma, debemos destacar nuestra disconformidad con el hecho de que el Diputado General de Gipuzkoa se hay mostrado de acuerdo en que la Diputación asuma el 30% del coste de la reforma cuando debería haber sido asumido en su integridad por el Gobierno Vasco.

Gipuzkoa precisa de importantes inversiones y dada la escasez de nuestros recursos financieros, el Ejecutivo Foral tendría que haber defendido mejor los intereses de nuestro territorio para conseguir que el Gobierno Vasco, asumiese íntegramente el impacto de la modificación.

La proporción 70% Gobierno Vasco, 30% Diputación lo ha votado el PNV. Ha sido una pena que no hayan pensado más en los guipuzcoanos, porque sabrán Vds. que en el resto de España, la proporción es de 60% gobierno central, y 40% comunidades autónomas, y todo lo asume el gobierno central. Tomad ejemplo.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Después de lo que has dicho no entiendo por qué se presenta la moción. No voy a ahondar más en esas disquisiciones. El nivel de recaudación y la presión fiscal aquí es más alta que en España. No tengo ninguna duda y de ello me siento orgulloso porque el nivel de

prestaciones de los servicios públicos y de calidad de vida también aquí es mayor que en España. Además de que hay una mejor gestión, creo que también hay una mejor política redistributiva y fiscal. El discurso político, obedece a lo que la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco están planteando.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 2 (PP)

Aurkako botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, Beasaingo Abertzale Sozialistak)

Abstentzioak: 3 (PSOE-PSE-EE)

Horren ondorioz, aldeko botoak aurkakoak baino gutxiago izan direnez, mozioa ez da onartu.

- Beasaingo Abertzale Sozialistak taldeak Abiadura Handiko Trenaz aurkeztutako mozioa.

Alkate jaunak, Andoni Antxia, Beasaingo Abertzale Sozialistak taldeko ordezkariari hitza eman dio eta honek honela dio: “Mozio honek urtarrilaren 27ko sarrera du. Mozio honen amaieran deialdi bat egiten da Tolosan otsailaren 1ean egin behar zen manifestazioan parte hartzeko. Hori epez kanpo gelditu da, baina mozioaren mamia ez da aldatu eta egunerokotasuna duela pentsatzen dugu. Horregatik irakurri egingo dut.

“ABIADURA HANDIKO TRENAREN (AHT) AURKA

Datorren otsailaren 1ean, larunbatarekin, Abiadura Handiko Trenari oposizioa erakusten dioten hainbat talderen eta erakunderen arteko AHT GELDITU! Elkarlanak manifestazioa deitu du Tolosan AHT gelditu beharra, aldarrikatzeko eta bere justifikazio faltagatik nahiz eragingo lituzkeen kalte ekologiko, sozial eta ekonomikoengatik, baita nekazaritzari eta lurraldearen orekari eragingo, lizkiekeenengatik ere, gaitzespen zabala jaso duen makro-proiektu horren inposaketa arbuiatzeko. Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Sustapen Ministerioak AHTren auzian agertzen duten intrantsigentzia dela eta, deialdi berezia egin nahi diegu, gainera, AHTri oposizioa erakusten dioten jende eta erakunde guztiei “AHT GELDITU! INPOSAKETARIK EZ!”, lelopean egingo den manifestazio horretan parte hartzeko, arratsaldeko 6etan Tolosako Triangelu Plazatik abiatuta. Mobilizazio indartsu bat bultzatu behar dugu Eusko Jaurlaritzaren inposatze-egitasmoari aurre egiteko eta AHT-k, inoiz gauzatuko balitz, arlo sozialean nahiz ingurugiroan eragingo lituzkeen ondorioen larritasunari buruz erabateko desinformazioaz baliatuta kostatuta ezarri

nahi zaigun garraio- eta gizarte-ereduari dagokionean eztabaida zabal eta eraldaketa sakon bati ekin behar zaiola aldarrikatzeko.

